

## Xedapen Orokorrak

### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

#### Zk-4970

175/2003 DEKRETUA, uztailaren 22koa, Ikerkuntzarako Euskadi Sariak arautzen dituen, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egin-kizuna da, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidego-ko jarduera zientifikoa sustatzea eta zabaltzea.

Helburu hori lortzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Ikerkuntzarako Euskadi Saria sortu zuen, maiatzaren 7ko 93/1996 Dekretuak arautu zuena. Dekretu horretan oinarrituta, 1996tik 2002ra urtero deitu eta ebatzi dira Ikerkuntzarako Euskadi Sariak.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko ikertzaileek eta talde kualifikatuek egiten dituzten ahaleginak sustatzea eta bultzatzea oso garrantzitsua da, horien lanak oso eragin positiboa izan baitu Euskadin. Horregatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak urtero egingo du Ikerkuntzarako Euskadi Sarietarako deia; bi sari deituko ditu, hain zuzen ere; bata, Gizarte Zientzien eta Humanitateen alorrekoa, eta bestea, berriz, Zientzia eta Teknologiaren alorrekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuan ezarritakoa (2001eko uztailaren 17ko EHAA) kontuan hartu da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua kontuan hartu da.

Horregatik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko uztailaren 22an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. *artikulua*.– Deialdia eta xedea.

1.1.– Dekretu honen helburua Ikerkuntzarako Euskadi Sariak arautzea da, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz.

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

#### Nº-4970

DECRETO 175/2003, de 22 de julio, por el que se regulan los Premios Euskadi de Investigación, con el fin de fomentar la actividad científica.

Entre las funciones que tiene atribuidas el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, se incluye la promoción y difusión de la actividad científica en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Para lograr este objetivo, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, creó el Premio Euskadi de Investigación, regulado mediante el Decreto 93/1996 de 7 de mayo. En base a dicho Decreto regulador se han convocado y fallado anualmente los Premios Euskadi de Investigación en el periodo 1996 a 2002.

Siendo de sumo interés estimular y promocionar los esfuerzos de investigadores y equipos cualificados de la Comunidad Autónoma del País Vasco o de fuera de la Comunidad Autónoma, cuyo trabajo haya ejercido una influencia positiva importante en Euskadi, es intención de este Departamento de Educación, Universidades e Investigación, proceder con carácter periódico anual a la convocatoria de dos Premios Euskadi de Investigación, uno en el campo de las Ciencias Sociales y Humanidades y otro en el de la Ciencia y Tecnología.

En virtud de lo establecido en el Decreto 7/2001 de 16 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos (BOPV de 17 de julio de 2001).

Teniendo en cuenta el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 22 de julio de 2003,

DISPONGO:

*Artículo 1*- Objeto y convocatoria.

1.1.– Es objeto del presente Decreto regular los Premios Euskadi de Investigación, con el fin de fomentar la actividad científica.

1.2.— Urtero bi sari deituko dira. Bata, Gizarte Zientzien eta Humanitateen alorrean egindako ikerkuntzalanari eskainiko zaio, eta bestea, Zientzia eta Teknologiaren alorrean egindakoari.

1.3.— Ikerkuntzarako Euskadi Sarietarako deia urtero egingo da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Agindu baten bidez. Agindu horrek honako hauek jasoko ditu: deialdiaren xedea, sari horietarako ezarritako zenbatekoaren eguneratzea eta hautagaiak aurkezteko epea —inolaz ere ez hilabete baino gutxiago—. Hori guztia ahaztu gabe, 2003an Dekretu honen xedapen iragankorretan ezarritakoari jarraituko zaio.

## 2. *artikulua*.— Betebeharrak.

2.1.— Ikerkuntzarako Euskadi Sarietarako aukera izan dezake lanean diharduen ikertzaile orok, Euskal Herrian jaioa bada, bere lan-ibiliaren zati handi bat Euskadin egina badu, edo bere lanak Euskadin eragin positiboa izan badu.

2.2.— Hautagaiak behin baino ezin izango dute saririk jaso.

## 3. *artikulua*.— Hautagaiak aurkeztea.

3.1.— Erakunde zientifikoek edo beste zientzilari batzuk proposatu ahal izango dituzte hautagaiak. Halaber, hautagaiak euren buruak ere aurkeztu ahal izango dituzte.

3.2.— Hautagaiak erakunde zientifikoek edo zientzilariek aukeratzen badituzte, hautagaiaren oniritzia adierazten duen agiria bidali beharko da.

## 3.3.— Hautagaiak aurkezteko eskatzen diren agiriak.

Kandidaturekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira —bakoitzetik sei kopia—:

a) Memoria laburra (bi edo hiru orri); bertan, hautagaia zein modalitatera aurkezten den, eta Dekretu honen 2.1. artikuluan ezarritako betebeharrak nola betetzen dituen adieraziko da. Halaber, hautagaiak saria jasotzea merezi duela frogatzen duten arrazoiak zeintzuk diren adierazi beharko dira, hizkera ez espezializatu batean.

b) Hautagaiaren curriculum vitae.

c) Curriculum vitaearen laburpen laburra ingelesez, hautagaiaren karrerako elementu azpimarkagarrienak adieraziz (orri bat).

d) (Aukerakoa) Hautagaiaren argitalpen nagusien kopia —gehienez bi—.

e) (Aukerakoa) Beste zientzilari batzuen gomendiozko gutunak.

f) (Aukerakoa) Egoki iriztitako beste edozein agiri.

## 3.4.— Agiriak aurkezteko lekua.

1.2.— Anualmente se convocarán dos premios. Uno dedicado al reconocimiento de la labor investigadora realizada en el campo de las Ciencias Sociales y las Humanidades y otro en el área de Ciencia y Tecnología.

1.3.— Los Premios Euskadi de Investigación serán convocados anualmente por Orden de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación. En dicha Orden constará en todo caso el objeto de la misma, la actualización de la cuantía económica destinada a los premios y el plazo de presentación de las candidaturas, que en ningún caso será inferior a un mes. Sin perjuicio de ello, en su edición 2003, se estará a lo dispuesto en las disposiciones transitorias del presente Decreto.

## *Artículo 2*.— Requisitos.

2.1.— Podrán optar a los Premios Euskadi de Investigación, todos los investigadores en activo que hayan nacido en Euskal Herria o que hayan desarrollado una parte importante de su carrera en Euskadi, o cuyo trabajo haya ejercido una influencia positiva importante en Euskadi.

2.2.— Los candidatos sólo podrán ser premiados en una única edición.

## *Artículo 3*.— Presentación de candidaturas.

3.1.— Los candidatos podrán ser propuestos por entidades científicas, por otros científicos o por sí mismos.

3.2.— En el caso de candidaturas propuestas por entidades científicas o científicos a favor de un tercero, se remitirá un documento que acredite el beneplácito del candidato o candidata.

3.3.— Documentación requerida para la presentación de candidaturas.

Las candidaturas deberán ir acompañadas de la siguiente documentación, por sextuplicado:

a) Breve Memoria (dos o tres páginas) en la que se explicita la modalidad de los premios a la que opta el candidato y la forma en que el candidato cumple los requisitos establecidos en el Artículo 2.1 del presente Decreto, y las razones, escritas en un lenguaje no especializado, por las que el trabajo del candidato le hace acreedor al Premio.

b) Curriculum Vitae del candidato.

c) Breve resumen del Curriculum Vitae en inglés, incluyendo los elementos más destacables de su carrera (1 folio).

d) (Opcional) Copia de un máximo de dos publicaciones clave del candidato.

e) (Opcional) Cartas de recomendación de otros científicos.

f) (Opcional) Cualquier otra documentación que se estime oportuna.

## 3.4.— Lugar de presentación de la documentación.

Eskaerak eta agiriak honako helbide honetara bidaliko dira:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Zientzia Politikarako Zuzendaritza.

Eusko Jaurlaritza.

Donostia kalea, 1

01010 Vitoria-Gasteiz.

Erref.: Ikerkuntzarako Euskadi Sariak.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako moduetatik edozein erabili ahal izango da horretarako.

**4. artikulua.**— Eskabideetan egin diren hutsak zuzentzea.

Dekretu honetan eskatutako zerbait betetzen ez duen eskabideren bat edo agiriren bat aurkezten bada, 10 eguneko epean hutsak zuzen ditzatela edo arauzko agiriak aurkez ditzatela eskatuko die Zientzia Politikarako Zuzendaritzak eskabideok izenpetzen dituztenei, eta zera adieraziko die: horrela egiten ez badute, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko dela. Hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan ezarritakoa betez egingo da —urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen Lege hori—.

**5. artikulua.**— Laguntza kudeatzeko organoa.

Dekretu honetan aurreikusi diren sarien kudeaketa Zientzia Politikarako Zuzendaritzaren egitekoa izango da.

**6. artikulua.**— Epaimahaia.

6.1.— Modalitate bakoitzerako epaimahai bat osatuko da urtero; Gizarte Zientzien eta Humanitateen alorrean eta Zientzia eta Teknologiaren alorrean —hurrenez hurren— Ikerkuntzarako Euskadi Sarien epaitza ematea izango da, epaimahai horien egitekoa.

6.2.— Ikerkuntzarako Euskadi Sarietako epaimahaiak euren jardun-eremuetan izen handia dutenak izan behar dute; bost-zazpi kide izango dira, eta horietako bat epaimahaiburua izango da.

6.3.— Epaimahaien osamodua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emango duen Aginduaren bidez jakinaraziko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, gutxienez, epaimahaiak epaia eman baino bost egun baldiodun lehena-go.

**7. artikulua.**— Esleitzeko prozedura.

7.1.— Epaimahaien egitekoa izango da partehartzailerik baldintzak betetzen dituzten egiaztatzea, aurkeztutako kurrikulumak euren jakintza eta uste zintzoaren arabera ebaluatzea, eta sariak emateko proposamena egitea.

Las solicitudes y la documentación se remitirán a:

Departamento de Educación, Universidades e Investigación

Dirección de Política Científica

Gobierno Vasco

Donostia - San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Ref.: Premios Euskadi de Investigación.

Por cualquiera de los modos previstos en el Artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 4.**— Subsanación de defectos de las solicitudes.

En el caso de remitirse instancias y documentación que, en algún punto, no cumplan lo exigido en el presente Decreto, los firmantes de tales solicitudes serán requeridos por la Dirección de Política Científica, para que en el plazo de 10 días subsanen las faltas o presenten los documentos preceptivos con indicación de que, si así no lo hiciera, se les tendrá por desistidos en su petición, de conformidad con lo establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

**Artículo 5.**— Órgano de gestión de la ayuda.

Corresponderá a la Dirección de Política Científica la realización de las tareas de gestión de la concesión de los premios previstos en el presente Decreto.

**Artículo 6.**— Jurado

6.1.— Anualmente se conformará un Jurado para cada modalidad, dedicados respectivamente al fallo del Premio Euskadi de Investigación en el campo de las Ciencias Sociales y la Humanidades y en el área de Ciencia y Tecnología.

6.2.— Los Jurados de los Premios Euskadi de Investigación, estarán compuestos por cinco a siete miembros de reconocido prestigio en sus respectivos campos de actuación, uno de los cuales ejercerá la Presidencia del Jurado.

6.3.— La composición de los Jurados se hará pública mediante Orden de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, debiendo publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco con una antelación mínima de cinco días hábiles al del fallo del Jurado.

**Artículo 7.**— Procedimiento de adjudicación.

7.1.— Corresponderá a los Jurados la comprobación del cumplimiento por parte de los participantes de los requisitos, la evaluación, a su leal saber y entender, de los currícula presentados, así como la propuesta de concesión de los Premios.

7.2.– Dekretu honen 1.2 artikuluan adierazten diren bi modalitateetako bakoitzean sariak emateko erabiliko den prozedura lehiaketa izango da. Horretarako, modalitate bakoitzean aurkeztu eta onartu diren eska-bideak erkatuko ditu epaimahaiak, eta bere jakintza eta uste zintzoaren arabera ezarri dituen irizpideen arabera baloraziorik handiena lortu duena bakarrik proposatuko du modalitate bakoitzean. Irizpide horiek guztiak sariak esleitzeko proposamenaren aktan jasoko dira.

7.3.– Epaimahaiak proposamenen inguruan erabakiak hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da epaimahaiakideen gehiengoaren aldeko botoa izatea; berdinketarik balego, epaimahaiburuaren kalitatezko botoak erabakiko luke.

7.4.– Epaimahaiburuak sariak esleitzeko proposamenaren akta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari bidaliko dio, eta sailburuak Agindu baten bidez sariak esleitu ditu. Administrazio-bideari amaiera ematen dion agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, onartzen den egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

7.5.– Sariak esleitu gabe utzi ahal izango dira.

7.6.– Sarien zenbatekoa ezin izango da banatu.

7.7.– Sariaren esleipenaren berri pertsonalki eman-goa zaio irabazleari.

7.8.– Deialdi-aginduaren arabera egindako eskabi-deak ebazteko epea, gehienez, sei hilabetekoa izango da, deialdi-agindua argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epe horren barruan jakinarazpenik egiten ez bada, eskaerak ezetsi egin direla ulertuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 44.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako. Horrek ez du esan nahi, Lege horrek administrazioari berariaz ebazteko obligaziorik ezartzen ez dionik.

**8. artikulua.**– Sariak ordaintzea eta golardeak ematea.

8.1.– Saria aldi batean ordainduko da, Dekretu honen 7.7 artikuluan adierazitako moduan sariaren esleipen-agindua argitaratu ostean.

8.2.– Gero sarituei golardeak emango zaizkie ekin-tza publiko batean.

**9. artikulua.**– Bateragarritasuna.

Dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzekin batera beste finantza-erakunde batzuk helburu bererako ematen dituzten diru-laguntzak jaso ahal izango dira.

7.2.– El procedimiento general para la concesión de los Premios será, en cada una de las dos modalidades que se contemplan en el apartado segundo del artículo 1 del presente decreto, el de concurso. A tal efecto, el Jurado procederá a la comparación de las solicitudes presentadas y admitidas en cada modalidad, proponiendo sólo aquella que en cada modalidad haya obtenido mayor valoración en función de los criterios que a su leal saber y entender haya establecido. Dichos criterios deberán incluirse en el acta que recoja la propuesta de concesión de los Premios.

7.3.– Cualquier acuerdo de propuesta que adopte el Jurado requerirá el voto favorable de la mayoría de los miembros, decidiendo el empate el voto de calidad del Presidente.

7.4.– Del Acta que recoja la propuesta de concesión del Jurado se dará traslado por su Presidente a la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, que adjudicará los Premios mediante Orden. Dicha Orden, que pondrá fin a la vía administrativa, será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, en el plazo de un mes a contar desde el día de su adopción.

7.5.– Los Premios podrán declararse desiertos

7.6.– Los Premios serán indivisibles en su cuantía.

7.7.– La adjudicación del Premio será notificada personalmente al ganador o ganadora.

7.8.– El plazo máximo para resolver las solicitudes formuladas al amparo de la Orden de convocatoria será de seis meses desde la publicación de la misma. En el caso de que no recaiga notificación expresa en plazo, podrán entenderse desestimadas las solicitudes a los efectos establecidos en el artículo 44.1 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación que la citada Ley impone a la administración de resolver expresamente.

**Artículo 8.**– Abono de los Premios y entrega de galardones.

8.1.– El importe del Premio se abonará en único pago, tras la publicación de la Orden de adjudicación de los Premios en la forma expresada en el apartado 7 del artículo 7 del presente Decreto.

8.2.– Posteriormente se procederá a la entrega de los galardones a los premiados en acto público.

**Artículo 9.**– Compatibilidad.

La percepción de las subvenciones reguladas en el presente Decreto es compatible con otras concedidas por otros organismos financiadores para la misma finalidad.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lebena.**— Prozedura gaietan Agindu honetan arautu gabeko kasuetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean, ezarritakoa aplikatuko da.

**Bigarrena.**— Agindu honetan aipatzen diren dirulaguntzak, aginduan bertan aurreikusitakoaz gainera, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Testu Bategineko VI. Tituluan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lebena.**— Xedapen honen bitartez 2003ko Ikerkuntzarako Euskadi Sariak deitzen dira, Gizarte Zientziak eta Humanitateak modalitatean eta Zientzia eta Teknologia modalitatean jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz.

**Bigarrena.**— Modalitate bakoitzean emango den zenbateko gordina 36.000,00 eurokoa izango da. Sarituek estatuatxo bat eta bereizgarri bat jasoko dute, gainera, sari-banaketako ekintza publikoan.

**Hirugarrena.**— Hautagaiak aurkezteko epea hilabeteak izango da xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean kontatzen hasita.

Interneteko helbide honetan dago eskuragarri deialdiaren eta berau arautzen duen dekretuaren testua: <http://www.hezkuntza.ej-gv.net/>.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz Ikerkuntzarako Euskadi Saria arautu zuen maiatzaren 7ko 93/1996 Dekretua indargabeturik gelditzen da.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lebenengoa.**— Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiaren aurrean, dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

**Bigarrena.**— Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamuneari izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko uztailaren 22an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,  
ANJELES IZTUETA AZKUE.

## DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**— En lo no previsto en el presente Decreto en materia de procedimiento, será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Segunda.**— Las subvenciones a que se refiere el presente Decreto, además de lo previsto en el mismo, se regirán por lo establecido en el Título VI del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País vasco aprobado por Decreto legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

**Primera.**— Por la presente disposición se procede a convocar en su edición 2003, los Premios Euskadi de Investigación, con el fin de fomentar la actividad científica, en sus modalidades de Ciencias Sociales y Humanidades y Ciencia y Tecnología.

**Segunda.**— Los Premios y cuantías brutas que se concederán serán de 36.000,00 euros para cada uno de ellos. Los galardonados recibirán además una estatuilla e insignia durante el acto público de entrega de los Premios.

**Tercera.**— El plazo de presentación de candidaturas será de un mes a partir del día siguiente de la publicación de la presente disposición en el Boletín Oficial del País Vasco.

La dirección Internet para obtener los textos de la convocatoria y del decreto regulador de la misma es: <http://www.hezkuntza.ej-gv.net/>.

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 93/1996, de 7 de mayo, por el que se regula el premio Euskadi de Investigación, para fomentar la actividad científica.

## DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— Contra el presente Decreto cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Segunda.**— El presente Decreto surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de julio de 2003.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,  
M<sup>a</sup> ANGELES IZTUETA AZKUE.